

EH Bildu MONDRAGON UNIBERTSITATEAn

2017/03/29

Joan zen asteazkenean, martxoak 22, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, EH Bilduren bisita jaso zuen.

Unibertsitatearen aldetik, Vicente Atxa, Errektorea, Jon Altuna, Errektoreordea, Begoña Pedrosa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekanoa eta Idoia Peñacoba, unibertsitateko Idazkari Nagusia egon ziren eta EH Bilduren aldetik berriz, Maialen Iriarte, EH Bilduren bozeramailea eta Miren Larrion, alderdi bereko parlamentukidea.

Lehenengo bilera hau, elkar ezagutzeko helburuarekin egin zen eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko Errektoreak, 2017-2020 plan estrategikoaren ardatz nagusien berri eman zien.

Bestalde, bi erakundeen artean, unibertsitatea, hezkuntza eta kompetitibitateari buruz duten bisioa partekatu zuten.

